

2019/00001414 DEKRETUA

DEKRETUA: Hernanin, 2019/09/05

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak diru-laguntzen bidezko gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko tresna eta kudeaketa-elementu gisa ezartzen du Administrazio Publiko bakoitzean Diru-laguntzen Plan Estrategikoa prestatu behar dela.

Gaur egun indarrean dagoen plana 2016ko abenduaren 20ko udalbatzarrek onartu zuen, indarraldia 2017-2019ko ekitaldietarako izanik. Hori horrela, plan berria prestatzea dagokio Udalari.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1. artikulua arabera, xedapen arauemaile baten proiektua egin aurretik kontsulta publikoa egingo da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez; bertan, etorkizuneko arauaren eraginpean izan daitezkeen pertsona eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasoko da. Kasu honetan, zentzu hertsian Planak xedapen arauemaile izaera izan ez arren, antolaketa tresna izanik, interesgarritzat jotzen da kontsulta publikoaren tramitea egitea, eragileek zein norbanakoek oro har, parte hartzeko eta planari ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

Planaren bidez konpondu nahi diren arazoak, planaren beharra eta egokitasuna, planaren helburu orokorrak, edota bestelako konponbide alternatiboak:

- Oinarrizko izaera duen diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: «administrazioko organoek edo diru laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, alde aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko baten zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak.
- Planak, aukera emango du lortu beharreko helburuak eta aurreikusitako kostuekin eta horiek finantzatuta lortu nahi diren ondorioak zehazteko, xedetzat hartuta diru-laguntzen bidez estali beharreko behar publikoak erabilgarri dauden baliabideetara egokitzea, eta hori guztia diru-laguntza eman aurretik.
- Planaren baitan, Legeak xedatzen duen jarraipen-sistema planteatu behar da, helburuak kontrolatuz eta ebaluatuz. Horrek aukera eman behar du nahi diren helburuen lortze-mailara iristen ez diren edo inbertitutako baliabide-mailara egokitzen ez diren diru-laguntza lerroak aldatu, beste eraginkor edo efizienteago batzuekin ordeztu, edo, hala behar bada, bertan behera utzi daitezten.
- Administrazio ikuspegitik, diru-laguntzak teknika bat dira interes orokorekotzat hartzen diren jokabide jakin batzuk sustatzeko. Era berean, Administrazio publikoaren eta partikularren arteko lankidetzaren prozedura bat ere badira interes publikoko jarduerak kudeatzeko. Izaera desberdineko diru-laguntza askotarikoak daude, prozedura konplexu baten bidez ematen direnak, eta, beraz, eraginkortasunez jarraitu eta kontrolatu beharra dago.
- Horrela, bada, Plana beharrezko osagarria da diru-laguntzak ematea artikulatzeko, betiere gardentasunaren eta aurrekontu-orekaren printzipioetan oinarrituz.

Eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Kontsulta publikoaren tramitea egitea, 2020-2022 epealdirako Hernaniko Udalaren diru-laguntzen Plan Estrategikoa osatzeari buruzkoa, ondoko jarraibide hauekin:

- Gaia: diru-laguntzen plan estrategikoan jasotako irizpideei buruzkoa.
- Epea: 2019ko irailaren 12tik, urriaren 9 bitartekoa (20 egun baliodunak).
- Dokumentazioa: [www.hernani.eus](http://www.hernani.eus) atarian.
- Parte hartzeko: [ogasuna@hernani.eus](mailto:ogasuna@hernani.eus).

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Itziar Larraz Mozo udal idazkariordea naizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: alkatea. Sinatua: udal idazkariordea